

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Alkatearen otsailaren 5eko 65/2019 Ebazpenaren laburpena, zeinaren bidez Zigoitiko udalerriko kontzejuen inbertsio gastuetarako 2019ko dirulaguntza deialdia egiten baita

BDNS (identifikatzailea): 440817

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza horien onuradun izango dira Zigoitiko udalerriko kontzejuak, baldin eta legez eraturta eta erregistraturta badaude.

Bigarrena. Xedea

Dirulaguntzaren helburua da udalerriko kontzejuak sustatzen dituzten obrak eta jarduerak finantzatzea, zerbitzu publikoak eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko egin badira.

Hona hemen zerbitzu publiko diren obrak:

Kontzeju etxea eta beste eraikin batzuk zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria, baldin eta horietan zerbitzu publikoa ematen bazaien herritarrei.

Kirol ekipamenduak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

Haurrentzako jolasguneak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

Zona berde eta hiriko lorategiak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

Hiri lurzoruan kale publikoen zoladura eta administrazio batzarren bideetatik herrietara eta hilerrietara iristeko bideak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

Argiteria publikoaren, etxeak edateko urez hornitzeko sarearen, euri uren eta ur beltzen saneamendu sarearen, argindarrareltzen saneamendu sarearen, argindarraren eta telefonoaren eta haien instalazioen lurpeko kanalizazioak eguneratzeko eta konpontzeko obra berria.

Bidaiarien garraio publikoaren zerbitzurako berinapeak edo antzekoak eguneratzeko eta konpontzeko obra berria.

Hilerria konpontzea eta/edo eraikitzea.

Kontzejuetako elementu bereziak birgaitzeko eta konpontzeko obrak, hala nola ermitak, iturriak, errotak, harraskak, parrokiak elizak..., baldin eta administrazio batzarrenarenak badira edo haren jabetza edo erabilera jabeak laga badio dagokion administrazio batzarrari. Erabileraren lagapenak indarrean beharko du izan eskabideak aurkezteko epea bukatu ondorengo hamar urteetan.

Bide publikoak seinalizatzeko obrak.

Nekazaritza bideak berriztatzea eta konpontzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Zigoitiko udalerriko kontzejuetarako dirulaguntzen ordenantzak, 2017ko abenduaren 20an onartuak, jasotzen ditu dirulaguntza horiek emateko oinarri arauak. Ordenantza hori 2018ko otsailaren 16an argitaratu zen, ALHAOn (20. zk.).

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira: aurkezten diren eskaerak alderatu egingo dira; deialdian ezarritako balorazio irizpideen arabera, lehentasun hurrenkeran jarriko dira, eta aipatutako irizpideak aplikatuz balorazio gehien lortzen dutenei esleituko zaizkie dirulaguntzak, hurrengo puntuan jarritako mugekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

2019ko aurrekontuko 943.734.000 (Inbertsioetarako dirulaguntza kontzejuei) aurrekontu aplikazioaren kontura finantzatuko dira deialdi honen harira aurkeztu diren eskaerak direla-eta ematen diren laguntzak.

Deialdiko laguntzen zenbateko osoa gehienez 170.000 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta agiriak aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 15ean amaituko da.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

Diruz lagundu behar den jardueraren justifikazio memoria, gutxienez, honakoak adieraziko dituen: egin beharreko obraren deskribapen laburra, horren kokapen fisikoa eta egingo diren lanen zerrenda.

Obren aurrekontua.

Seigarrena. Justifikatzeko epea eta era

Agiri hauek aurkeztu behar zaizkio udalari dirulaguntza jasotzeko:

Onuradunak sinatutako eskaera, alkateari bidaliko zaiona. Bertan, dirulaguntzaren ordainketa eskatuko du eta transferentzia zein kontu korrontetan egin behar den adieraziko du.

Justifikazio fakturak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak).

Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.

Beste erakunde edo organismo batzuk emandako dirulaguntzen egiaztagiriak.

2019ko abenduaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira justifikazio agiriak.

Ondategi, 2019ko otsailaren 5a

Jarduneko alkatea
NEREA TXURRUKA GARATE